

Literatura

# Oinazea letraz janzteko manierak

Behin baino gehiagotan lehertu da eztabaida: nola islatu du euskal literaturak euskal gatazka?

Txalapartak gaiaren inguruko 18 ipuin *Haginetako mina* liburuan bildu dituela aitzakia hartuta, Beñat Sarasolaren artikulu honetan idazleak eta kritikariak aferaz nola manifestatu diren ikusiko duzu. Gainera Itxaro Borda idazleak, Iratxe Retolaza kritikariak eta Inazio Mujika eta Mikel Soto editoreek euren iritziak eskaini dizkigute.

Testua: BEÑAT SARASOLA

Elkarrizketak: GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Dani Blanco

AZKEN URTEOTAN presentzia nabaria izan duen gaia izanagatik, ez da oso aspaldian euskal literaturan eta euskal gatazkaren erlazioaren inguruan hausnartu eta idazten dela. Izan daiteke arrazoi ugariaren kariaz, baina euskarazko nobela, poema eta ipuinetan aspaldi samarretik gatazka eta bere ondorioak azaltzen diren arren, duela gutxi arte ez da gaia planteatu literatur kritikaren ikuspegitik.

Baina, ezer baino lehen, *Maldetan Sagarrak*-en Jon Benitok zioen bezala, zertaz ari gara euskal gatazkaz ari garenean? Hitzetik hortzera erabiltzen dugun terminoa da, baina nago ez litzatekeela batere erraza izango denok adostutako terminoaren definizioa lortzea. Batzuentzat euskal gatazka Espainia eta Frantziaren zapalkuntzaren ondorioz sortzen den gatazka da, beste batzuentzat ETA-ren terrorismoa, beste batzuentzat klase borroka ezkutatzeko balio duen amarrua, edo

**Autobus erreak, manifestazioak, atxiloketak... Euskal Herrian behin eta berri ikusi ditugun irudiak dira. Irudiak letra bihurtzea da idazleen erronka. Lortu al dute euskal gatazkaz letraz behar bezala janzteak?**

horietatik guztietatik pixka bat. Eredu labainkorra, bistan denez, eta hala, kritiko bakoitzaren arabera, euskal gatazka modu batera edo bestera ulertzen da, bere hausnarketan ondorioak ere ezberdinak izango direlarik.

## Mikel Iriondo eta Iban Zaldua

Gaia plazaratu zuen lehenetarikoa EHU-ko estetika irakaslea den Mikel Iriondo izan zen. 2003ko urte bukaeran *Bitarte* aldizkarian argitaratutako *Arte y violencia en el País Vasco* izeneko artikulu batean, “bortizkeria terrorista” euskal artean –eta tartean euskal literaturan– nola landu den aztertzen zuen. Artikuluaren ideia nagusia honakoa zen: euskal arteak bizkarra eman dio “biolentzia terrorista” azaldu eta lantzeari. “Ia ez dira existitzen duela ia 40 urtetatik lotzen gaituen bortizkeria terrorista lantzen duten adierazpen artistikoak”. Eus-



Itxaro Borda

## «Borrokaren anbiguitatea ez da landu»

GAIZKA IROZ



**Nola iritsi da gai hau eztabaidagai izatera?**

Hor da egunero, badu berrogei urte hor dela. Betidanik aipatu izan da zuzen edo zeharka biolentzia politikoaren gaia gure literaturan. Gaur

egungo kopurua, hori da aldaketa: orain denak ari gara.

**Zerk eragin du hori?**

Beharbada sentitzeak posible dela beste modu batera bizitzea. Izan dira tregoa zenbait, eta horietan beste hitz egiteko eta gaiari buruz pentsatzeko molde bat sumatu da, bederen. Gainera uste dut literaturarako oso gai egokiak direla: egiten ahal dira *thrillerak*, nobela polizialak, lekukotasun nobelak...

**Esan liteke genero bat osatzen dutela gatazkan kokatutako liburuek?**

Ildo bat bederen bai, osatzen dute; alde batetik, gaurko gatazkaren inguruko gaiak, eta horrekin paraleloki etortzen den gerra zibilaren denborako gaiak. Bi multzo horiek baditugu gure literaturan bereziki.

**Lotuta ikusten dituzu biak?**

Uste dut baietz. Beharbada sinplifikatuko dut gehiegi baina... Abertzale mundutik kanpo diren idazleek dute gaurko gatazka aipatzen; eta abertzale munduan direnek dute 36ko sarraskia aipatzen, bata bestearen etsai balira bezala.

**Ba al da alderik gaiaz euskaraz ala erdaraz idatziz gero?**

Uste dut garai batean euskaradun idazlea ez zela atrebitzen gai horietaz hitz egitera. Borroka armatua aipatzen bal-

din bazen, eta ez bereziki gauza glorios bat bezala, orduan anti-euskaldun izatea ere leporatzen ahal zitzaion —oraindik ere bai, baina presioa pixka bat apaldu dela argi da—. Gauza inportantea da gure hizkuntzan gure buruhausteak ere aipatu ahal izate hori.

**Zer dago egiteke?**

Ez da landu borroka horren anbiguitatearen gaia...

**Anbiguitatea?**

Bai. Aldi berean gaitzesten dugu, nik pertsonalki bada zenbait urte egin nuela; baina, hala ere, une zenbaitetan eskergarria izaten ahal da. Beti gauza hori pentsatzen dut Bizkaiko hondartzak ikustean: leku horiek salbatuak izan direla nuklear kalamitatetik borroka armatuari esker. Hori da anbiguitate handia. Eta horren idaztera ez gara oraindik heldu. ■

kal literaturari dagokionean, bertako balizko errerealismo falta salatzen zuen, ez bide zegoen euskal literaturan politikarako tarterik, “*Goenkalen* bezalatsu”. Salbuespenen artean, Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* eta Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* aipatzen zituen; lehenengoak terrorismoaren salaketa espliziturik egiten ez zuela zioen, eta bigarrenaren emaitza, berriz, etsigarria zela —arrazoi berdinetatik, suposatu dezakegu—.

Iban Zalduak amu honi heldu eta euskal literaturan bortizkeria Iriondok adierazi baino dezente gehiago landu izan dela erantzun zion *Animalia disekatnakeko* atal batean. Liburu-zerrenda luze samar bat azaltzen zuen Zalduak, *Ehun metro* geroztik gaia euskal literaturan etenik gabe landu dela erakutsi nahian. “Kontua da, noizean behin arinki esaten denaren kontra, egon badagoela gatazkaren inguruko langintza literario bat, poliedrikoa eta, nire ustez, bizi dugun egoera irakurtzen laguntzen diguna, hein handiagoan edo txikiagoan”. Inpresioa dut, haatik,

**Ramon Saizarbitoriaren *Ehun metro* eta *Hamaika pauso* nobelak idazle eta kritikari gehienen erreferentzien artean daude, euskal gatazka gure literaturan izan duen bilakabidea aztertzerako orduan.**



zerrenda horretatik zenbait liburu ez lituzkeela inolaz ere “bortizkeria terroristaren” salatzaitzat hartuko Iriondok, eta gainontzekoetatik, gehienak etsigarriak irudituko zitzaizkiola, *Ehun metro* eta *Gizona bere bakardadean* modura ez dutelako aski argi eta esplizituki gaitzesten eta, batez ere, kondenatzen, bortizkeria hori. Beranduagoko idazki batean, Mikel Azurmendiren *Tango de muerte* liburua-aren aurkezpenean, Iriondok Atxagaren *Soinujolearen semea* aipatzen zuen, eta bai, “ideologia nazionalistaren euskarri afektiboaren”

erakusgarritzat jotzen zuen, eta hortaz, nobela honek ere ez du aski asebetetzen biolentzia terroristaren balizko salaketa beharra. Arazoa da Iriondoren euskal gatazkaren kontzeptio estuak eta bere posizionamendu politiko markatuak ez diola ikusten uzten gaiari erlazioatutako obra andana hori, eta azkenean, panfleto politikoa dela kontu honen inguruan onargarria zaion molde bakarra —nahiz eta, jakina, berak halakorik ez aitortu—. Euskal gatazkaren inguruko bere lerraketa hain da itsua, ezen kontraesanean sartzen baita

Ignazio Mujika

## «Lubakiak, egotekotan, ez daude hizkuntzan»

**Nola bihurtu da eztabaidagai euskal gatazka literaturan?**

Kontua beti airean egon dela esango nuke: idazten hasi nintzenean —eta badira hogeitau urte baino gehiago— gogoratzen naiz Jesus Mari Lasagabasterrek aipatzen zuela harrigarria zela euskal gatazka ez azaltzea euskal literaturan, behar zen bezala. Esango nuke orduan ere agertzen zela gaia, baina gerora liburu asko argitaratu dira.

**Zertan desberdintzen dira gaiaren inguruan euskarazko eta erdarazko lanak?**

Esango nuke euskaraz idatzi direla fikzioan euskal gatazkari buruzko liburu interesgarrienak. Hemengo erdal idazle batzuen artean badago topiko bat, ez dela idatzi arazoari buruz, batez ere alderdi batetik. Nahiko salaketa gogorak egin izan zaizkigu: azkena, gogoan

dut, min handia egin baitzidan, Fernando Aranburuk egin zuen. Esaten zuen euskaraz ez dela ETaren biktimen gaia tratatu. Nik uste dut izen batzuk ematea nahikoa dela kontrakoa frogatzeko: Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua*, Jokin Muñozen *Bizjia lo* eta *Antzararen bidea...* bat baino gehiago daude, eta gainera horiek denak gaztelaniara itzulita daude. Nahi badute ikus dezakete: ez daude bi lubaki, euskarazko idazleena eta erdarazkoena. Lubakiak baldin badaude, ez dira hizkuntzarenak. Hizkuntzak beti ematen dio zerbait lanari, transmisio bidea baino gehiago da, baina uste dut euskaraz ikuspuntu ugaritako lanak idazten direla. Proportzioa diferentea dela? Beharbada bai, baina hori soziologoek esan beharko dute.

**Esan liteke genero bihurtu dela euskal gatazkarena gure literaturan?**

Ez dut uste. Adibidez, Jokin Muñozen *Bizjia lo* ez dauka zerikusirik *Antzararen bidearekin*. Gatazkari begiratzeko bi modu ezberdin dira, eta hori idazle berarekin; pentsa idazle diferentek kontuan hartuta. Batzuetan, gainera, idazlearen kontzientzia ez dago gatazkaren argibidea ematea: idazleak literatura egin nahi du, pertsonaiak eraiki, eta gatazka haztegi egokia iruditzen zaio horiek kokatzeko. Hori bai, garbi dago gaia ukituko ez balitz arazo bat izango genukeela, gaixotasun bat, borbora dagoen gaia delako. ■



Holokaustoaren inguruan egiten dituen kontsiderazioekin. Izan ere, Holokaustoari dagokionean, artelan aberats eta nabarduraz beteak (Imre Kérteszen obra) hobesten ditu ikusgarritasunaren eta manikeismoaren (Steven Spielberg-en *Schindler's list*) aldean.

### Maldetan sagarrak

2005eko uztailean Miarritzen *Euskal gatazka euskal literaturan* izeneko ikastaroa antolatu zuen UEU-k. Bertan zenbait idazle, kritikoa eta adituk gaiaren inguruko beren ikuspegia azaldu zuten. Jardunaldi hauetako mintzaldiak urte bete beranduago bildu ziren *Maldetan sagarrak* liburuan. Liburu hau da gai honi buruzko egungo erreferentziako liburua.

Itxaro Bordak Iriñdo eta Zalduak jarritako puntuari jarraitu zion nolabait, eta *Ehun metro*-z geroztik “Euskal Herriko egoera politikoa latza” azaltzen zaigula defendatu zuen, nahiz eta azpimarratzen zuen 1998ko su-etenaren ondotik “lumak askatu” eta bortizkeria gaitzat hartzen diren liburuak areagotu direla. Baina Bordak gaiari

alderdi berri bat gehitu zion, gatazka euskal

literaturan adierazten ote den baino, gatazka hori nola azaltzen den galderari erantzun ziolako *Bortizkeria, idazle eta zenbait gai oraino* izeneko hitzaldi horretan. Eta hala, bere tesi nagusia zen euskal literaturan etakidea gudari izatetik terrorista izatera pasa dela: “Bilakaera luzea eta astiroa izan da. ETako ekilea eta geroxeago IK-koa, gudaria zen eta hogeita hamar urte beranduago ekile berdina argiki terrorista da idazleentzat. Ez denentzat bistan dena, baina bai anitzentzat”. Bordaren ustez, euskal

gizartearen ETaren bortizkeriarekiko jarrera aldaketak, 90eko hamarkada hasieran kokatzen duenak, bere erreflexua izan du euskal literaturan. Gisa honetan, 70eko hamarkadako *Ehun metro* eta 80ko hamarkadako Txillardegiren *Exkixu*-ko etakideak heroi edo gudari gisara agertzen bazaizkigu, 90eko hamarkadako *Gizona bere bakardadean* nobelaren etakidea “irakurlearentzat batere sinpatikoa ez da”. Argi dago ikuspegi hau zalan-tzan jarri daitekeela; batetik, Saizarbitoriak berak aipatzen du *Bost idazle* Hasier Etxebe-





Iratxe Retolaza

## «Eztabaida oso lotua dago literaturaren funtzioarekin»



ARGAZKI PRESS

### Nondik abiatu zen eztabaida hau?

Azken batean, gaur egun “euskal gatazka”-ren inguruan dauden eztabaida gehienak literaturaren funtzioarekin oso loturik daude, literatura eta errealtatearen arteko

harremanaren inguruko kezkekin. Garai batean literatura konprometituen inguruko eztabaida sortu zen, eta gaur egun euskal gatazkaren inguruan sortu diren galdera askok literaturaren funtzioaz ikuspegi bat ematen dute: batzuen ustez, gatazka fikzioa sortzeko aitzakia ona da –diotenez ez dute errealtatearen irakurketarik egin nahi, zeharka irakurketa badagoen arren, erreferenteek baldintzatzen dutelako irakurketa, jakina–; beste batzuen ustez, gatazkaren inguruan idaztean euskal gatazka nola bizi dugun agertu behar da –alderdi humano

hori, nork bere esperientziaren kontaketa estetikoak, nolabait–.

Azkenean mahai gainera jauzi egin duen eztabaida horixe da, literatura eta ideologiaren arteko harremana, nolakoa den, nolakoa beharko lukeen, nola ematen den euskal literaturan, zein harreman dagoen idazlearen ideologia eta testuaren ideologiaren artean, eta noski, zein harreman dagoen irakurlearen ideologiaren eta testuaren ideologiaren artean.

Arazoi garrantzitsu bat da azken urte hauetan belaunaldi desberdinak ari direla idazten euskal literaturan, eta alde horretatik, ikuspuntu gehiago daude. Gatazkaren inguruko gertakari eta sentimendu asko dira literaturara oraindik jauzi egin ez dutenak, baina, gatazkek dirauen artean –zauriak bizi-bizi diren artean– hitz egitea posible bada ere, distantziak laguntzen du. Esango nuke zenbait idazleren kasuan distantziak lagundu egin duela, ze hitz egiten da euskal gatazkaz, baina gutxik hitz egiten dute gaur-gaurkoaz; urrunago enfokatuta hitz egiten da

gehienetan, urrun denboraz, edo urrun inplikazioz.

### Euskaraz idazteak eragiten al du ikuspuntuan?

Uste dut, orokorrean, euskaldun direnen gizartean bizipen batzuk daudela, hizkuntzak eragiten duela gai batzuetara hurbiltzeko. Argi dago ikuspuntu politiko batzuetan euskara ez dagoela presente; orduan, literaturan ikuspuntu horietara gerturatzea euskaraz... Bere horretan errealtateak ekartzen duen ondorioa dela uste dut.

### Zer geratzen da egiteke?

Askotan esaten da han eta hemen hutsuneak ikusten direla: nire kezka nagusienetako bat da, adibidez EAJren ikuspunturik ez dugula. Errazagoa da aurkitzea EEko baten ikuspuntua, edo gaur egungo sozialista batena, edo ezker abertzaleko batena. EAJrena berriz, EAEn ustez babestua den alderdiarena, ez daukagu. ■

*rriarekin berbetan* elkarrizketa-liburuan ez dagoela *Ehun metroren* interpretazio honekin ados, ez duela hain argi ikusten Jon protagonista heroia denik; eta bestetik, ikusi dugu dagoeneko Iriondori, esaterako, *Gizona bere bakardadeaneko* etakidea sinpatikoegia iruditzen zaiola oraino.

Aingeru Epaltzak puntu dezentetan Bordaren bide beretik jo zuen, eta hala, zera seinalatu zuen: 2000. urtetik aurrera gatazkaren gaineko idazlan ugari kaleratu badira ere, ordura arte borroka armatua argi eta garbi kritikatu zuten kasuak bakanak izan dira –hemen ere bat egiten du Mikel H. Abaituak–. Bestetik, aldaketa hau euskal jendartearen gertatutako pertzepzio aldaketarekin lotzen zuen orobat: “faktore sozial begi bistakoak daude gai honek (euskal gatazkek) 80ko hamarkadan gure liburuetan duen presentzia urria azaltzeko, eta faktore sozial horiek bere eragina dute 90eko hamarkadako pixkana-pixkanako isurrian”. Baina halaber, ñabardura bat gehitu zuen, alderantziz ere gertatzen dela azpimarratuz; alegia, literaturak jendartearen ikusmoldea aldarazten duela maiz, eta gainera, aurreikuslea izan daitekeela. Zentzu horretan, 1991n argita-

ratutako bere lehenengo nobela luzea, *Ur uberrak*, iragarletzat jotzen du.

Jokin Muñozek, *Bizia lo. Obe azpia* hitzaldian Mikel Iriondoren ideia nagusia jaso zuen: “Neurri batean, euskal idazleek errealtate mikatzari bizkarra erakusteko joera izan dute beti”. Alabaina, joera hori ez du soilik Iriondok esango lukeen “biolentzia terroristara” mugatzen, gauza bera gertatzen da gerra eta gerraondoko literaturarekin, zeinak gudarien, exiliatuen eta enparauen errealtatea alde batera uzten baitu. Hala, Muñoz euskal literaturan gaur egun egin daitekeen onena euskal gatazkaz idaztea dela esatera iritsi zen: “Orain, eta batez ere gure harresia erortzen denean, gure literatura definitu eta, aldi berean, harenganako interesa piztuko duena ‘La Cosa’ da”.

### Joseba Gabilondo

Baina *Maldetan sagarrak* baino lehenago, eta are, Iriondok eta Zalduek baino lehenago, 1998. urtean, beste kritikari batek, Joseba Gabilondok, gaiari buruzko artikulua bat idatzia zuen. Kontua da AEBetako aldizkari espezializatu batean, *Arizona Journal of Hispanic Cultural Studies* 2-an, publikatu zuela

Mikel Soto

## «Gatazka ardatz duen poesiari- ez da idatzi Espainian»

### Nondik abiatzen da eztabaida hau?

Beno, Euskal Herrian oro har eta euskal kulturgintzan batez ere eztabaida bat pizteko komunikabideetan hiru gutun besterik ez dira behar: bat kontrako eta bi aldeko. Orain gainera teknologia berriekin esango nuke gutun bakarra eta hiru iritzi aski direla. Gainera, gai honek dauzkan ertzak aintzat hartuta esango nuke kontu kitatze pertsonal asko egon direla eta horrek eztabaida sustatu duela, baina ez zentzu onean. Esango nuke pertsonaletik ekiteak eztabaida posiblea desitxuratu eta banalizatu duela.

### Hizkuntzaz gain, gai hau lantzerakoan zertan desberdintzen dira euskarazko eta erdarazko literaturak?

Ba literarioki suposatzen dut antzeko motibazioa dutela eta teknikoki antzeko baliabideak. Ezberdintasuna, nik uste, hurbiltzeko moduan dago eta, ondorioz, emaitzan.

Gure apalean, esango nuke hemen- goa, oro har hobea dela. Espainian zarata politikoak ezinezko bihurtzen du ezer. Ez naiz *La pelota vasca*ri buruz ari; *Tiro en la cabeza*ren adibidea paradigmaticoa da. Ebrotik behera Roselliniren *Roma città aperta* sutara botako lukete partziala izateagatik.

Tomás y Valienteren semeak argitaratu berri duen eleberria (*El hijo valiente*) gainetik irakurri eta lotsagarria iruditu zitzaidan. Eta, urrutiegi jo gabe, hain literato ona den eta hain pentsalari zorrotza den Sanchez-Ostizen *En Bayona bajo los porches* liburuak egiten duen hurbilpen eskasa ere badago. Bi aipatzeagatik...

Hauek irakurrita lehen jarri dudan zinemaren adibidea etortzen zait berri- ro burura: Euskal Herrian 98an kokatu- tako espainiar filmetan “frantses pro- duktuei boikota” eta antzekoak agertzen direnean, edota guardia zibilak eta etakideak txortan egiten dutenean

eta antzeko txo- rradak.

**G a t a z k a r i** buruz ari ga- renean per- spektiba galtzen dugu sarri. Ezber- dintasun nagusia? Nire ustez Euskal Herrian gatazka ardatz duen poesia ugari eta oso-oso ona idatzi dela eta Espainian, nik daki- dala behintzat, batere ez.

### Genero bat osatzen dute gatazkari buruzko liburuek?

Ez, gai bat dela esango nuke, beste gabe. Espainian gerra zibila bezala, Kuban blokeoa bezala, Hegoafrikan apartheid-a eta abar, eta abar... Niri dagokidanez, antologagarria iruditu zitzaidan gai bat dela esango nuke. Baina antologagarria iruditzen zait tren- nei buruzko literatura ere. ■



TXALAPARTIA

ingelese, eta gurera ez zela ailegatu artiku- lua euskaraz bere *Nazioaren hondarrak* libu- ruan bildu zuen arte, 2006. urtean. Hots, artikulua 1998an idatzi eta argitaratu bazen ere, Euskal Herrian ez zen 2006a arte jaso, Iriondo eta Zalduaren arteko eztabaida eta *Maldetan sagarrak* liburuaren ondoren, beraz.

Eta hau guztia kontuan izanda, deigarria egiten da Gabilondoren eta arestian aipatu kritikoa edo idazle batzuen arteko bat-etortzea zenbait punturen gainean. Gabilondok ere *Gizona bere bakardadean*, Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*-rekin batera, mugarriztat hartzen du ETAREN jardunaren inguruko per- tzezpizio aldaketa ulertzeko: “Bi eleberriok lehen saio bat osatzen dute ETARI buruz historikoki idazteko, zuzenean babestu gabe edota zeharka marjinatu gabe”. Horien aurre- ko kasu bat, *Ehun metro*, aintzat hartzen du, baina Bordaren eta Iriondoren interpretazio antzekoa egiten du hemen ere: “testuinguru politikoa medio, terrorismoak funtzionatzen du ‘gu’ (euskaldunak) eta ‘haien’ (espainia- rrak) kontra definitzen gaituen/dituen indi- katzaille nazionalista bezala”.

### Laburbilduz: bide berriak

Bistan denez, eztabaidak luze mintzatu eta argudiatzeko bidea ematen du, baina, iritzi diferenteak irakurri ondoren, badirudi bada- goela halako tesi orokor bat nahiko onartua dagoena kritiko eta enparauen artean, zeina honelaxe laburtuko genukeen: Euskal gataz- ka euskal literaturan aspaldidanik –gutxienez *Ehun metroz* geroztik– izan dugu present, baina 90eko hamarkadaren hondarrean gatazka honen arrasto nabaria duten obrak ugaritu egin dira, neurri batean, euskal gizar- tean hamarkada horretan gertatutako ETA- ren gaineko pertzezpizio aldaketa medio.

Agerikoa denez, euskal gatazka eta euskal literaturaren inguruko eztabaida, funtsean, ETAREN jardunari eta etakideei buruz litera- turak ematen duen irudira bideratu da. Hala, askok faltan botako dituzte, segurue- nik, gatazkako beste elementu batzuetan –presoak, senideak, ETAREN biktimak, ihes- laria, torturatuak, mehatxatuak...– oinarri- tutako azterketa kritikoak. Badaude hor, honenbestez, ikerketa bide berriak; ez baga- ra lehenago kontu honekin behin-betiko guztiok gogaitzen, jakina. ■